



MADDI SOROA

Baleren Bakaikoa Azurmendi



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Alemania eta ordoliberalismoa

ALEMANIAK EUROPAKO HERRIALDEAK bere menpe jartzeko asmoa ez da oraingoa. Ez dira hainbeste hamarkada joan azken-aurreko saiakera egin zuela, baina oker atera zitzaion. Militarki herrialde ugari bere agindupean izan zituen, baina horrela menperatuta eusteak kostu handiegia ditu.

Bigarren Mundu Gerraren ostean, Alemania neutralizatuta edukitze aldera, Europako Batasuna (EB) deiturikoa sortu zen. Ekialdeko eta Mendebaldeko Alemania batu zirenean, EBk baliabide politiko eta ekonomiko andana ipini zituen Alemaniak erraztasunak izan zitzaizkion, horien artean arazuko defizit publikoa gainditzea. EBko beste herrialdeei debekatu egiten zitzaizkion.

Hala ere, oro har, iritzi publikoak bereganatuta dauka Alemania dela EBri eusten dion herrialdea, politika europarrak alemaniarrek finantzatzeko dituztelako. Eta ez da egia. Izan ere, EBren aurrekonturako estatu kide bakoitzak bere BPGren ehuneko bat esleitzen du eta aurrekontu horretatik zenbait dirutza jasotzen du EBko politika bateratuak gauzatu ahal

Alemaniko sistema gehiago kokatzen da ordoliberalismoan neolibalismoan baino. Doktrina honen arabera, oro har, estatuak esku hartu behar du arau ekonomiko sendoak finkatze aldera, demokratikoki hautatutako legebiltzarrak ezin du jarduera ekonomikoan eragin, ordena ekonomikoak lehentasun izan behar du

izateko. Noski, Alemaniak ekartzen duena baino gutxiago eskuratzen du. Beraz, diru fluxu publikoetan saldo negatiboa dauka. Fluxu pribatuetan, ordea?

Izan ere, Alemaniako merkataritza balantza positiboa da, kanpoan gehiago saltzen duelako inportatzen duen kopuruarekin alderatuta. 2014an, kanpo superabita bere BPGren 7,57koa izan zen eta 2002tik 2014ra bitartean, batez bestekoa, ehuneko 6-7koa. Alemaniaren esportazioen ehuneko 58 EBra doa. Hori dena posible izan da EBko herrialdeen arteko muga zergak desagertu zirelako.

Desoreka hori autorregulatuko zen, baldin eta herrialde bakoitzak bere diru propioa eduki izan balu: Alemaniako markoa birbaloratuko zen eta bere ondasunak garestitu gainontzeko herrialdeetan. Aldiz, defizita jasandako herrialdeen dirua debalatu da. Egoera hori ordea, iragana da euroarekin. Haatik, desoreka horiek konpontzeko europar diru funtsa bat sortu behar izan zen, eta huts egin ondoren, soldaten debaluazioaren bidez lehia-kortasuna handitu da.

Bestalde, superabit horrekin Alemania gai da dirua maileguz uzteko EBko edozein herrialderi, Espainiako Estatu edo Greziako bankuei, kasurako. Halaber, dirutza uztearen truke interes oparoak ere jaso ditu Alemaniak.

Politika hori guztia doktrina politiko-ekonomiko zehatz baten ondorioa da: *ordoliberalismoa*. Alemaniako sistema gehiago kokatzen da ordoliberalismoan neolibalismoan baino. Doktrina horren arabera, oro har, estatuak esku hartu behar du arau ekonomiko sendoak finkatze aldera, demokratikoki hautatutako legebiltzarrak ezin du jarduera ekonomikoan eragin, ordena ekonomikoak lehentasun izan behar du.

Hortik sistemaren oinarritzko erakundeak gobernuaren kontroletik at egon beharra: Bundesbank Alemanian eta bere pareko EBZ EBn; gobernuak legebiltzarri entzun ordez ekonomiako jakitunei jaramon egin behar die eta EBn Europako Batzordeak betetzen du jakitunen papera; merkatu soziala sustatzen da; austertatea ekonomiako jakitunek behartuko dute; ongizate estatua sozialdemokratek mehartuko dute, ez ordoliberalistek. EBn Alemaniako gobernuak esku hartzea itsusia denez, Troika eta Euro-taldea eratuko ditu inolako babes legalik gabe.

Haatik, EB demokratizatu gura badugu, gizarte zibilak hauteskundeetan agindutako egitarauak gauzatu behar dira, Grezia gauzatzen saiatu zen bezala. Izan ere, Greziak bideak nondik joan behar lukeen erakutsi digu eta ez da gutxi. ■

[* Ordoliberalismoaz gehiago jakiteko irakurri ale honetako Net Hurbil.]